

EUSKADIko KSletako sektoreen mugaketa kontzeptuala eta definizioa



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



EUSKADIko KSletako sektoreen mugaketa kontzeptuala eta definizioa _

Aurkezpena _3

1 Kultura-industrietatik sormen-industrietara _4

- 1.1. Abiapuntua: kultura-industriak _4
- 1.2. Sormen-industrien agerpena _6
- 1.3. KSlen inguruko eztabaidak _7

2 KSlak mugatzeko erreferentzia-esparruak _8

- 2.1. Eredu kontzeptualak _8
 - 2.1.1. Britainiar eredia: DCMS _8
 - 2.1.2. NBE/UNCTAD _9
 - 2.1.3. KEA _9
- 2.2. Eredu estatistikoak _10
 - 2.2.1. UNESCO _10
 - 2.2.2. Europar Batasuna _11

3 Erronkak eta KSI sektorea neurtzeko tresnak _13

4 KSI eredu bat EAerako _16

- 4.1. Hiru irizpide eta premisa bat _16
- 4.2. DKSI sektorearen definizioa _17
- 4.3. Ereduaren orientazioak eta helmena _18

5 Jardueren definizioak eta deskribapena _19

- 5.1. Azterketa-eskema _19
- 5.2. KSI sektoreen definizioak _20
 - 5.2.1. Kultura-sektoreak _20
 - 5.2.2. Sormen-sektoreak _23

6 Erreferentziak _25

Eranskina: azterketa-fitxak _27

Aurkezpena: eredu propio baterantz

Azterlanean EAEko Kultura eta Sormen Industrien (aurrerantzean KSI) kontzeptu-esparrua mugatu eta zehaztu nahi da. Asmoa da azterketaren xede izango diren sektoreak hautatzea, argudioak emanda, eta definizioak ematea berorien helmena mugatzeko.

Eztabaidaren atze-oihal modura, kultura-sektorearen izaera hedakorra dago, eta, hortaz, hari mugak jartzeko zailtasuna. Eztabaida hau garatzearekin batera, eta berorren ondorioz, jarduera gehiago erantsiz joan dira, bai kultura-sektorearen balio ekonomikoa kontabilizatzeari dagokionez, bai estatistika kulturalaren informazioan. Eta kultura-sektorea mugatzearen zailtasunari sormen-industrietarako hedapena gehitzen bazaio, erronka are handiagoa da.

KSlen definizioa inklusiboagoa edo baztertzailagoa izan daiteke, ez dago adostasun garbirik, eta litekeena da inoiz ez egotea, aurreikuspenen arabera, haiek osatzen dituzten sektoreak eta azpisektoreak zabalduz joango baitira, errealtate ekonomiko, sozial, kultural eta teknologikoa eraldatuz joan ahala. Izatez, kultura-sektoreak bizi izan du jada antzeko prozesu bat, XX. mendearen erdialdean kultura-politikak instituzionalizatu zirenetik.

Hala ere, eztabaida oraindik itxi ez den arren, azterketan erreferente diren organismoak KSI sektorearen perimetroa markatzen duten koordinatuak marrazten ari dira. Hala UNESCOk nola European Statistical System Network on Culture (ESSnet-Culture) deituak proposatutako eredu kontzeptualek mugatzen, zehazten eta planteatzen dituzte KSI sektorea aztertzeko tresna estatistiko harmonizatuak.

Txosten honetan EAEko KSI sektorea aztertzeko eredu kontzeptual baten diseinua dago jasota. ESSnet-Culturek planteatzen dituen jarraibide eta gomendioetatik abiatuta –bera baita erreferentzia estatistiko nagusia europar esparruan–, ereduak bere egiten du tradiziozko kultura-sektorearen gune gogorraren karakterizazioa eta sormen-sektoreetara hedatzen du ekintza eremua. Tresna praktikoa eta bideragarria izateko asmoarekin diseinatu da. KSItzat hartzen direnen definizio global batean oinarritutako eredu abstraktua proposatu ordez, metodo inductiboa erabili da, alegia, industria zehatzen azterketatik abiatuta, sektoreetako bakoitzean zer neurtu eta nola neurtu proposatu da, harik eta EAEko KSItzat esparru orokor bat eratzea lortu den arte. Diseinua gidatu duen asmoa bikoitza da:

- Existitzen diren baldintzatzaileetatik eta errealtatetik abiatzea, KSIak aztertzeko erreferentziako eruedetan oinarriturik eta sektoreak EAEko dituen berezitasunak ezagututa.

- EAEko KSlen adierazgarria izateaz gainera, nazioarteko alderagarritasuna ahalbidetzen duen esparru edo marko bat proposatzea.

Hala, berorren baliagarritasuna, alde batetik, analitiko izango da, KSI sektoreari buruzko ikerketa orientatzeko balioko baitu estatistikaren ikuspegitik eskatzekoak diren sendotasun- eta alderagarritasun-irizpideen arabera; bestalde, marko gisa balioko du politika publikoak gidatzeko eta EAEko KSlek osatzen duten enpresa-sareari buruzko erabakiak hartzeko.

1 **Kultura-industrietatik sormen-industrietara**

Mugaketa kontzeptualaren eta haren ondorengo Euskadiko KSlen definizioaren alde aurreko urratsa abiapuntua kokatzea izango da, eta «kultura-industria» terminoaren aplikaziotik «kultura- eta sormen-industrietara» egin den hedapena dagokion testuinguruan jartzea.

Lehen kapitulu honetan eztabaida kokatzen saiatuko gara. Kontzeptuaren bilakaera aztertuko dugu kultura-industriak sortu zirenetik sormen-industrien barruan sartzen direla onartu den arte, KSlen sektoreari bide ematen zaiola. Era berean, KSlen joko-zelaia zabaldu izanak sortu dituen inplikazioak planteatuko ditugu, eztabaida sortzen duten alderdiak identifikatzearekin batera.

1.1 **Abiapuntua: kultura-industriak**

Walter Benjaminek hauteman zuen aurren zer eragin zekarkion esperientzia estetikoari erreproduzio industrialak aplikatzeak. Objektu estetikoak ulertzeko moduan zekarren eraldaketaz ohartu zen eta hura biztanleriaren geruza zabaletara hedatzeak izango zituen inplikazioez ere bai. Haren arteari buruzko teoria materialista, zeinaren jatorria argazkigintzari buruzko azterlanetan bilatu behar den, auraren galeraren inguruan mugitu zen. Izatez, Benjaminek aztertzen duena artearen kontzeptu beraren erroto eraldaketa da. «Behin-behineko gogoeta» modura idatzita, *Artelana erreproduzitzeko ahalmen teknikoaren aroan* (1935) izenburuko haren saiakera ospetsuaren tesia da irudia mugarik gabe erreproduzitzeko aukerak haren «aura» suntsitzen duela, ezinezkoa egiten duela jatorrizkoa eta kopia bereiztea eta, distantziak laburtzean, obrak desakralizatzen dituela, edonoren eskumenean jartzen dituen.

Frankfurtko Eskolako teorialariak Benjaminen lekukoa bere egin eta urrats bat aurrerago joan ziren lehen aldiz kultura-industria honela definitu zuten: «edozein motatako ondasun kulturalak irabazi ekonomikoak xede duten proiektuen esparruan txertatzen dituen jardura, haien kontserbazioa eta zabalkundea mesedetzen dituela» (1947). Kultura-industriaren oinarritzat teknologia eta erreproduzitzeko ahalmena kokatzen dituzte eta errentagarritasun ekonomikoak bilatzearen ideia azpimarratzen dute. Beraz, beste industria-jardura batzuetan bezalaxe, kultura-industriak sortzen dituen produktuak salerosgai gisa ulertu behar dira. Horrek talka egiten du ordura arte arteak bete izan zuen funtzioarekin. Merkataritza-ekonomia logika artearen logikan barneratzen da eta haren funtzioa, indarra eta burujabetasuna mugatzen ditu.

Kultura-industria singularrean aipatzen dute, irizten baitiote kulturak antzekotasuna inposatzen duela eta jardura edo eremu bakoitzak (zinema, irratia, aldizkariak) logika beraren pean harmonizatutako osotasun gisa pentsatutako sistema bakarra eratzen duela. Postura horretatik, ondasun kulturalen estandarizazioa eta homogeneizazioa dira kultura produktibo masifikatu horren ezaugarriak. Beraz, produktu kulturalen kontrol ideologiko bat dago. Horrela pentsatutako kultura-industriak loturak ditu beste eremu batzuetako industriekin ere, eta makineria ekonomiko bat sortzen da non enpresa handiak eta monopolioak nagusi diren.



Frankfurtko Eskolak teknologiaren, kulturaren, boterearen eta ekonomiaren arteko harremanetan jarri zuen fokua. Eta bere analisisen erdigunea kultura-industria da, hark sortzen duen produktuaren ikuspegitik, hau da, masa-kulturaren perspektibatik.

Aurrerago, kulturaren ekonomia izango da, arlo horretan argitu beharreko egitate ekonomiko bat dagoela behin onartu ondoren, kultura-industrien analisisan arreta jarriko duen diziplina. Industria hauen merkataritza- eta industria-izaera onarturik, beren eduki sinbolikoa dute ezaugarritzat. Horrela, ekonomia industria horien ekoizpen-moduez, balio-katearen analiziaz, merkatuez eta kontsumitzaileez interesatzen da. Ikuspegi, teoria edo eskola desberdinetatik egin dira analisiak.

Aipatzekoak dira, aitzindari gisa, Baumol eta Bowen, arte eszenikoei buruzko analisiaren egileak, eta 60 eta 70eko hamarraldietan, kultura-industrien parte diren sektoreei buruzko analisi ekonomikoen inguruan egindako frantses ikerketak. Ordutik hasita, asko sakondu da kultura-industrien azterketan. Nabarmentzekoak dira, beste askoren artean, David Throsby australiarraren ikerketak, Bustamante eta Zallorenak espainiar estatuan, eta García Canclini eta Martín-Barberorenak Latinoamerikan.

Interesgarria da ohartzea UNESCO 70eko hamarraldian hasi zela kultura-industriak esapidea erabiltzen, kulturaren sorkuntzarako, adierazpenerako eta sarbiderako esparru gisa jokatzeko duten papera aitortzen zela. Eta terminoa pluralean erabiltzen du gainera, haiek osatzen dituzten kultura-sektore desberdinen berezitasunak indartzeko. UNESCO kezkatuta zegoen arlo horretan erregulazio arauturik ez zegoelako eta, 1978ko Konferentzian, berariazko programa bat sortzea erabaki zuen kultura-industriek gizartearen garapenean bete behar zuten funtzioa eta ekarpena ikertzeko xedearekin.

Azterlan horien emaitzak 1982an argitaratu ziren honako izenburu honen pean: *Kultura-industriak: kulturaren etorkizuna jokoan*. Testuan adierazten da «kultura-industria bat existitzen dela kultura-ondasunak eta -zerbitzuak irizpide industrial eta komertzialen arabera ekoizten, erreproduzitzen, kontserbatzen eta zabaltzen direnean, hau da, sailean eta estrategia ekonomiko bat aplikatuz, kultura garatzeko xedez aritu ordez». Lehen ikuspegi hori jardueraren izaera industrialean eta merkaturakoan zentratzen da, zeinari lehentasuna ematen baitzaio sektoreen alderdi kulturalaren gainetik.

Geroago berrikusiko ditu, 2002an, ondoren adierazten diren terminoetan, «izaera kulturala duten edukien sorkuntza, ekoizpena eta merkaturatzea konbinatzen dituzten industriak; eduki horiek jabetza intelektualeko eskubideen babespean egongo dira eta zerbitzuen edota ondasun materialen eta ukiezinen forma har dezaketek». Horrela, kultura-ekitaldiak, -ondasunak, -produktuak eta -zerbitzuak sortzen, ekoizten eta banatzen aritzen den edozein erakundetara irekitzen ditu; jabetza intelektual gehitzen dute; eta industria terminoa zerbitzuetara eta ondasun ukiezinetara hedatzen dute. Kontzeptu hedatua da.

Azkenik, UNESCO utzi gabe, kultura-industrien definizio erabilienetako bat 2005ean onartutakoa da. Honako jarduera hauekin identifikatzen ditu: «Garatzen ari diren unean atributu, erabilera edo xede espezifiko bat duten ondasunak edo zerbitzuak ekoizten edo banatzen dituzten industriak, aipatutako atributu, erabilera edo xede horrek kultura-adierazpenak biltzen dituzte, haien merkataritza-balioa edozein dela ere. Arteko sektore tradizionalak gainera (arte eszenikoak eta ikusizko arteak, edo kultura-ondarea, sektore publikoan barne-hartuta dagoena), zinema, DVDaren eta bideoaren sektorea, telebista eta irratia, bideo-jokoak, hedabide berriak, musika, liburuak eta prentsa hartzen dituzte barnean».

Ikusten den bezala, 70 urte joan dira kultura-industriaren lehen azterketak egin zirenetik. Kontzeptu horrek eboluzionatu egin du pixkanaka, testuinguru sozioekonomikoaren arabera, eta ikuspegi berri bat ireki da, tekniko eta merkataritza arlokoa soilik, kulturari gehiago dagozkion elementuak barnean hartu arte eta sektore berrietara irekitzen dela. Izatez, zabaltze horren ondorioz, kultura-industria kontzeptua kulturaren sektore pribatu komertzialaren sinonimo bihurtu da eta edozein sektoretako enpresa pribatuak aipatzeko erabiltzen da, baita arteetakoak ere.



1.2 Sormen-industrien agerpena

Sormen-industrien terminoa berriagoa da: azken bi hamarraldiotara mugatzen da bere erabilpena. Hartarainoko indarrez agertu zen non, lehenik, kultura-industrien sinonimotzat erabili baitzen, harik eta termino hori ia erabat fagozitu duen arte.

Komeni da zehaztea nola eta zergatik sortu zen. Globalizazioak, ekoizpen-ereduen eraldatzeak eta inguru teknologiko berriak testuinguru ekonomiko eta sozial berri bat ekarri dute. Hein handi batean, ingurune digitalaren agerpena eta balio-katean eta produktuen bizi-zikloan ekarri duen haustura direla eta –orain digitalak dira produktuak–, erreproduzitze kontzeptuari lotutako industriaren ideia zaharkituta eta gaindituta geratu da.

Faktore horiei hazkunde ekonomikoaren iturri askoren desmaterializazioa gehitu behar zaie, esate baterako, jabetza intelektualeko eskubideak eta ondasun sinboliko kulturalen banaketa. Esparru berri honetan, hazkunde-eragile klasikoak izan zirenak –fabriketako produkzioa, adibidez– pixkanaka beren lekua galtzen ari dira sormen-komunitateen mesedetan, azken hauen lehengai sortzeko eta berritzeko gaitasuna delarik.

Sormen-industriak terminoaren aurrekariak Australiako gobernuak 90eko hamarraldian ateratako *Creative Nation* agirian koka daitezke. Dokumentu hark osagai berri bat erantsi zion kulturaren tradiziozko esferari IKTak, eta hango politika kulturalari gehitu zitzaizkion. Britainiar gobernuko laborismo berriak hartu zion Australiari lekukoa eta, hamarraldi berean, sormen-industriak mapa batean kokatzeko bideari ekin zion. Sormen-industrien lehen mapa Erresuma Batuko Department for Culture, Media and Sport (DCMS) delakoak argitaratu zuen 1998an. Lehen aldiz aztertu zen zehatz-mehatz sormen-jarduerek zer ekarpen egiten dioten herrialdearen osasun ekonomiko orokorrari. Horrela ireki zuten esfera politikotik sormenari buruzko diskurtso ofiziala.

Une horretatik aurrera, gaia Europar Batasunera eta ELGara hedatu zen. Erakunde horiek sormen-industriei eta haiek Europako ekonomiari egiten zioten ekarpenari buruzko azterlanak enkargatu zituzten, adibidez, KEA aholkularitzak 2006an egindakoa.

Handik laster, NBE korrante horretara gehitu zen, Merkataritzari eta Garapenari buruzko Konferentzian (UNCTAD). Txosten bat argitaratu zuen Ekonomia Sortzaileari buruz, sormenaren, kulturaren, ekonomiaren eta teknologiaren elkarteta modura ulertzen zuela: «hazkunde ekonomikoa eta garapena sortzen dituzten sormen-abantailetan oinarritutako kontzeptu ebolutiboa, enplegua eta esportazioak sortzen dituena, aldi berean, gizarte-inklusioa, kultura-aniztasuna eta giza garapena sustatuz». Txostena nazioarteko bost erakunde handiren lankidetzari esker egin zen (UNCTAD, UNDP, UNESCO, WIPO e ITC) eta, haren ondorioz, sektore espezifiko gisa onartu zen ofizialki ekonomia sortzailea.

Azkenik, garrantzitsua da adieraztea eredu britainiarra eta UNCTADena jabetza intelektualean oinarritzen direla; izan ere, Throsbyren eta UNESCOren kultura-industrien kontzeptuetan hura onartuta zegoen arren, bi horietan modu esplizituagoan jasotzen da, sormenaren balioa jabetza intelektualeko eskubideak ustiatzeko ahalmenean zentratzen baitu.

Horrela, DCMSren britainiar ereduak dio sormen-industriak direla, osagai giltzarri gisa, sormena, trebetasuna eta talentua eskatzen dutenak, aberastasuna sortzen dutenak eta enplegu-iturri direnak, jabetza intelektualeko eskubideak ustiatzearen bidez; eta WIPOk adierazten du egile-eskubideak dituzten ondasunak eta zerbitzuak sortzen, ekoizten, transmititzen eta/edo banatzen dituztenak direla sormen-industriak.

Labur esanda, mundu guztiak onartzen du sormen-industrien izaera estrategikoa, sektore dinamikoenetakoa baita ekonomiaren ikuspegitik, hain zuzen, berrikuntza sustatzen duelako ekonomian eta, hortaz, lehiakortasunari laguntzen diolako. Azkenean perspektiba ekonomikoa nagusitu da, sormen-industriak hazkunderako baliabidetzat hartzen dituenak, edukien funtzioari eta zentzuari buruzko eztabaiden gainetik, azken haiek bigarren planoan geratu baitira.

Ekonomiarantz egindako biratze honen adibide argia da duela gutxi arte kultura zer den eztabaidatzen zenean, kulturari egin beharreko esku-hartze publikoarekin lotzen zirela eztabaida horiek, segurutzat jotzen baitzen kultura-politika publikoek lantzen zuten arloa zela kultura. Sormenaren arloko beste sektore batzuetara hedatu izanaren babesean, sustapen ekonomiko edo industrialeko departamentuak KSle dagozkien gaiez arduratzen hasi dira. Are gehiago, KSlen kontzeptualizazioari buruzko eztabaidak, eremu ekonomiko edo industrialetatik datozen estrategia eta politika publikoetatik pizten dira. Kulturari kanpotik iritsi zitzaizkion eztabaidak dira, eta postura hartzera behartzen dutenak.



1.3 KSlen inguruko eztabaidak

KSlen kontzeptua –nahiz eta, nazioarteko organismoak, pixkanaka, hura onartuz joan diren– ez dago oraindik eztabaidatik kanpo. Izatez, 80 eta 90eko hamarraldietan sortu ziren aurrez aurreko ikuspegiak bere horretan daude. Kritiken arrazoa da kulturaren tokia ekonomiaren eta politika publikoen mende dagoela eta merkatuaren liberalizazioan eta jabetza intelektualeko eskubideen defentsan oinarritzen dira.

KSlen eredia onartzeko zailtasun –eta, bide batez, kritika– nagusia da kulturak, beste sektore batzuetara zabaltzean, indarra hartzen duela ekonomiaren arloan, baina, aldi berean, bere funtsa galdu eta lausotu egiten dela. Beste sektore batzuekiko duen berezko transbertsalitate ahalmena dela eta, hainbat estrategia sortzen dira kultura baliabide gisa erabiltzen dutenak, tresna soil gisa kulturalak ez diren beste helburu batzuk lortzeko (turismoa, ekonomia, ekologia, hezkuntza, etab.). «Beste zerbaitetarako» aitzakia dira. Batzuek diote, hedapen horretan, eremu mugakide horiek onura ateratzen dutela kultura inguratzen duen prestigiotik. Gainera, bigarren mailako rola emateak esan nahi du –rol hori luxuzkoa izan arren– kultura politika publikoen mende geratzea onartzen dela. Hori da irizpide ekonomiko soili kasu eginez (hazkundera, enplegua, etab.) joko-eremua hedatzeari kontra egitearen oinarrian dagoen argudioa.

Haatik, kulturaren ikuspegi soili kontuan hartuta ere, ez da posible ezin mugituzko jarrera bati eustea, errealtateari bizkarra emanez, noizbait izan zena jada ez den zerbaiten esentziak gorde nahirik. Ezinezkoa baita balio-katean, sektorearen egitura klasikoan eta erabilera eta praktika kulturaletan halako haustura sortu duten testuinguruko aldaketak kontuan hartu gabe bizitzea. Guztia hibridoagoa da jada, lausoagoa, mugatzen zailagoa. Horregatik dira beharrezkoak aldaketa horiek islatuko dituzten eredu eta tresna berriak.

Sormenaren eremua azterketarako xede gisa hartzearen arazoetako bat bere lausotasuna da, bere zehaztasun eza eta sendotasun falta. Berariaz adierazten du hori ESSnet-Cultureko lantaldearen txostenak: «sormen-industrien kontzeptua oso lausoa da, ez dago argi eta garbi zehaztuta hura aipatzen den hainbat dokumentutan, eta sektore desberdinak hartzen ditu barnean estrategia akademiko edo nazionaletan».

Lehenik diote, behin eta berriro, ez direla gauza bera sorkuntza artistikoa –balio-kate kulturalaren funtzioetako bat– eta sormen kontzeptua. Kultura-sorkuntzak sormena eskatuko du beti, baina sormen guztia ez da sorkuntza. Arrazoi horregatik ESSnet-Cultureren eredu estatistikoan sorkuntza kokatzen da aurreikusten den jarduera multzoaren (domeinuak eta funtzioak) erdigunean edo bihotzean.

Bigarrenik, esan behar da KSlen eremuak ez datozela beti bat eredu guztietan. Bi adibide kontrajarri aipatzearen, alde sortzaileenaren aldeko hautua egiten duten ereduak –adib. DCMS– kanpoan utzi dezakete ondarea, bere hasierako formulazioan egin zuen bezala, nahiz eta, gero, zuzenduko zuen. Aitzitik, kulturaren aldeko joera dutenak uzcurrago dira sormen-sektoreekiko eta kanpoan utzi ditzakete softwarea eta informatika-zerbitzuak.

Horrela bada, beharrezkoa da KSI eredu propio bat proposatzea, mugatzea eta definitzea, eztabaidak zentratzen lagun dezan eta erreferentzia metodologiko bat izan dezagun etorkizuneko analisiak orientatzeko eta industria horien sostengu-estrategiak erabakitzeke.

2_KSIak mugatzeko erreferentzia-esparruak

KSlen izaera estrategikoa geruza zabaletan onartua badago ere –ez da alferrik sektore dinamikoenetako bat ekonomiaren ikuspegitik–, oraindik irekita dago esparru kontzeptualaren definizioari eta mugaketari buruzko eztabaida, haien azterketa eta analisirako.

Ez gara hasiko aztertzen NBEk eta Europako Batzordeak KSlen garrantzi estrategikoa nabarmentzeko azken urteotan egin dituzten txostenak; aldiz, ezaugarri gisa sektore arteko muga lausoak dituen eta etengabe eraikitzen ari den eremu dinamiko bat eratu joan diren eredu kontzeptualei jarriko diegu arreta.

2.1_Eredu kontzeptualak

2.1.1. Britainiar eredu (DCMS)

Erresuma Batua izan da sormen-industria kontzeptua erabili duen herrialde aitzindarietako bat, eta esan behar da berariazko pisua eman diola; hots, publikoki babestu ez ezik, aztertu ere egin du. 1990eko hamarraldian, erakunde publiko britainiarrak sormen-industriak mapan jasotzen hasi ziren. 1998an argitaratu zen sormen-industrien lehen mapa. Lehen aldiz aztertu zen zehatz-mehatz, bada, sormenaren alorreko jarduerak zer ekarpen egiten dioten herrialdearen osasun ekonomiko orokorrari. Sormen-industriak mapan kokatzeaz gainera, Erresuma Batuko Kultura, Hedabide eta Kirol Ministerioak estatistika bat egiten du erregulariki (*Creative Industries Economic Estimates*), eta berorretan aztertzen dira balio erantsi gordina (BEG), enplegua eta sormen-industriak osatzen dituzten enpresen kopurua. Analiak, batik bat, industriei jartzen die arreta.

Britainiarrek sormen-industrien alde egindako apustuaren emaitza 1998an lehen formulazioa izan zuenetik aldatuz joan den KSI eredu bat izan da, 1. taulan ikusten den bezala. Beste herrialde batzuetan piztu zuen eztabaida baloratzen hasi gabe, eta barnean hartzen dituen sektoreetara mugaturik, bi puntu azpimarratuko ditugu:

- Softwarea eta informatika-zerbitzuak barnean hartzea, hala hasierako bertsioan, nola eguneratutakoan.
- Museok, galeriak eta liburutegiak barnean hartzea, 2016ko bertsioan. Kultura-ondarea kanpoan uztea izan zen hasierako ereduari egin zitzaion kritiketako bat.



1. taula. 1998-2016 artean DCMSk barne-hartutako KSI sektoreak

1998	2016
1. Publizitatea	1. Publizitatea eta marketina
2. Arkitektura	2. Arkitektura
3. Arteak eta antzinako gauzak	3. Eskulangintza
4. Eskulangintza	4. Diseinua: produktua, grafikoa eta moda-diseinua
5. Diseinua	5. Zinema, TB, bideoa, irratia eta argazkigintza
6. Moda	6. IT, softwarea eta informatika-zerbitzuak
7. Zinema eta bideoa	7. Edizioa/argitalpenak
8. Entretenimendurako softwarea	8. Museoa, galeriak eta liburutegiak
9. Musika	9. Musika, arte eszenikoak eta ikusizko arteak
10. Arte eszenikoak	
11. Edizioa/argitalpenak	
12. Softwarea eta informatika-zerbitzuak	
13. Irratia eta telebista	

2.1.2. NBE/UNCTAD

UNCTADek, ondorengo sektore hauek barnean hartzen dituen KSlen sailkapena planteatzen du:

Kultura-ondarea: Artearen forma guztien jatorriarekin lotzen da, kulturaren eta sormen-industrien arimatzat hartzearekin batera. Kultura-ondarea da sailkapen honen abiapuntua, izan ere, berari lotuta baitaude alderdi kultural historikoak, antropologikoak, etnikoak, estetikoak eta sozialak, eta, hortaz, eragin zuzena du sormenean; gainera, hainbat ondare-zerbitzu eta ondasunena ez ezik, kultura-jardueren jatorri ere bada. Multzo hau ere 2 azpimultzotan zatitzen da:

- Tradiziozko kultura-adierazpenak: eskulangintzak, jaialdiak eta ospakizunak
- Kultura-lekuak: museoak, liburutegiak, erakusketak, etab.

Arteak: Multzo honetan batez ere artean oinarritutako sormen-industriak sartzen dira, kultura-ondarean, identitate-balioetan eta esanahi sinbolikoetan inspiratuak. Multzo hau, halaber, beste 2 azpimultzo handitan banatzen da.

- Ikusizko arteak: Margolaritza, eskultura, argazkilaritza eta antzinako gauzak
- Arte eszenikoak: musika bizirik, antzerkia, dantza, opera, zirkua, txotxongilo-emanaldia etab.

Komunikabideak: Multzo honek 2 azpimultzo handi hartzen ditu barnean, biak ere sormenezko edukiak ekoizten dituztenak entzuleria handiei komunikatzeko asmotan (baliabide berriak bereizita daude)

- Argialetxeak eta baliabide inprimatuak: liburuak, prentsa eta beste argitalpen batzuk
- Ikus-entzunezkoak: filmak, telebista, irratia eta beste mota batzuetako hedabideak


Sorkuntza funtzionalak: Multzo hau eskaerara eta xede funtzionaleko ondasun eta zerbitzuetara orientatua dago.

- Diseinua: barrualdeena, modakoa, bitxiak, grafikoa eta jostailuena
- Baliabide berriak
- Sormen-zerbitzuak: arkitektura, publizitatea, kultura- eta aisialdi-zerbitzuak, sormenezko ikerketa eta garapena (I&G), digitalizazioa eta kideko beste sormen-zerbitzu batzuk.

2.1.3. KEA

KEA. *European Affairs* aholkularitzak 2006an Europako Batzordearen aginduz gauzaturako *The Impact of culture on creativity* ikerketarekin «culture-based creativity» kontzeptuaren garrantzi estrategikoaren ideia garatu zen, sormen-kulturak ekonomia osoan berrikuntza, eta beraz, lehiakortasuna bultzatzen duela dioen ideia oinarri hartuta. KEA aholkularitza-enpresak proposaturako zirkulu zentrokideen ereduak –Europak bere egin duena– makrosektore bat deskribatzen du, eta eremu hauek hartzen ditu barnean: arteen eta ondareen erdigunea; liburu, musika, zinema eta bideo, irratia-telebista, bideo-joko eta prentsako kultura-industriak; sormen-industriak –diseinua, arkitektura eta publizitatea–, eta industria kulturek balioa sortzen duten eta lotuta dauden beste sektore edo industria batzuk.

1. irudia: Kultura- eta sormen-sektoreen mugaketa



Iturria: KEA-European Affairs

2.2 Eredu estatistikoak

2.2.1. UNESCO

UNESCOren Estatistika Kulturalen Esparruaren (**Marco de Estadísticas Culturales de la UNESCO**, MEC) 2009ko bertsioak 1986ko hasierako Esparrutik hona kulturaren alorrean sortu diren hainbat kontzeptu gehitzen ditu. Horien artean daude teknologia berriak, ondare ukiezina, eta etengabeko bilakaeran dauden praktika eta politika kulturalak. EKE (MEC) berriak artikulatzen duen logika bi alderdi

- «Domeinu kulturala» kontzeptua: Esparruaren ikuspegitik, domeinu batek elkarri lotutako jarduera guztiak hartzen ditu barne, horien izaera ekonomikoa edo soziala izan.
- Sormen-kultura eztabaida: Sormen-industriek tradiziozkoek baino domeinu artistiko zabalagoak hartzen dituzte beren baitan; esate baterako, IKT industria guztiak edo ikerketa eta garapenekoak ere bai. Esparruak bi domeinu gehitzearen bitartez erantzuten dio problematikari: Ikus-entzunezko baliabideak eta interaktiboak eta Diseinua eta sormen-zerbitzuak.

2. taula. 1986-2009 artean EKEk barne-hartutako KSI sektoreak

EKE 1986	EKE 2009
<p>Hamar kategoria kultural:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Kultura-ondarea 2. Material inprimatuak eta literatura 3. Musika 4. Arte eszenikoak 5. Arte plastikoak eta ikusizko arteak 6. Zinema 7. Irratia eta telebista 8. Jarduera soziokulturalak 9. Jolasak eta kirolak 10. Izadia eta ingurumena 	<p>Zazpi domeinu kultural:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ondare kulturala eta naturala 2. Aurkezpen artistikoak eta ospakizunak 3. Ikusizko arteak eta artisautza 4. Liburua eta prentsa 5. Ikus-entzunezko bitartekoak eta interaktiboak 6. Diseinua eta sormenezko zerbitzuak 7. Ondare kultural immateriala (zeharkako domeinua)
	<p>Hiru domeinu zeharkako:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Hezkuntza eta gaikuntza 2. Agiritegiak eta begiratzea 3. Ekipamendua eta laguntza-materialak
	<p>Bi domeinu erlazionatu:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Turismoa: turismo kulturalera, espiritualeko eta ekologikoko jarduerak 2. Kirolak eta jostaketa
	<p>Ziklo kulturalaren bost etapa:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Sorkuntza 2. Ekoizpena 3. Hedapena 4. Erakusketa / harrera / transmisioa 5. Kontsumoa / parte-hartzea



2.2.2. Europar Batasuna

Ikuspegi estatistiko soiletik begiratuta, Europar Batasunak, urteetan zehar, Europako eredu estatistiko kultural baterako oinarriak zehazteko borondatea erakutsi du; hartara, errealitatea ezagutu eta, estatu kideei sektore kulturala sustatzeko politikak definitzen laguntzeko modua izan zezan. Ildo horretan, estatistika kulturez arduratuko zen lan-talde bat sortu zen 1997an, LEG-Culture izenekoa (*Leadership Group sur les statistiques culturelles*).

Europako eredu estatistikoaren definizioari dagokion azkeneko fasea 2009an *European Statistical System Network on Culture* (ESSnet-Culture) izeneko lan-taldea sortzea izan zen, Luxenburgoko Kultura Ministerioaren koordinaziopean. Hauek izan ziren ESSnet-Culture sarearen helburu nagusiak:

- Europako estatuaren arteko estatistikaren arloko lankidetzari berrekitzea eta LEG-Culturek sortutako estatistika kulturaren Europako esparrua berrikustea.
- Orduko oinarri metodologikoak hobetzea, Europako estatistiken kultura berri bat garatzeko.
- Adierazleak eta aldagaiak zehaztea, sektore kultural konplexua deskribatu eta aztertu ahal izateko.
- Esperientzia nazional bat ematea datuen analisi aurreratuago bat egitea ahalbidetzeko.

ESSnet-Culture eredu 4 lan-taldetatik (*task force*) abiatuta antolatu zen, horietako bat, hain zuzen, Esparruaren diseinuari eta definizioei berariaz eskainia.

Hala eta guztiz ere, hainbat erakundek ahalegin handiak egin dituzten arren, zaila da sormenezko sektoreei buruzko datuak bateratzea Europa mailan; izan ere, adierazi bezala, erabili daitezkeen datu gehienak estatu kideek ekoiztiak baitira eta, ondorioz, oso zaila da batzuk eta besteak alderatzea.

Eredu estatistikoetan KSlek izan duten trataerari dagokionez, kontuan hartzekoa da LEG-Cultureren eredu arkitektura barnean hartuta zegoela; ESSnet-enak, berriz, eskulangintza eta publizitatea jasotzen ditu, berrikuntza gisa, kudeaketa eta arautze funtzioaz gainera.

ESSnet-en eredu berrian, garrantzi handiko bi gai azpimarratzen dituzte:

- Ez dago lehentasunik domeinuen artean: ez baitago besteak baino garrantzitsuago denik.
- Zirkulu zentrokideen erdigunean sorkuntza artistikoa dago.

3. taula. 2000-2011 artean Europar Batasunaren Esparru estatistikoetan sartutako KSI sektoreak

LEG-CULTURE 1997-2000	ESSnet-CULTURE 2009-2011
<p>Erreferentziako zortzi eremu:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Kultura-ondarea 2. Agiritegiak 3. Liburutegiak 4. Liburua eta prentsa 5. Arte plastikoak 6. Arkitektura 7. Arte eszenikoak 8. Audioa eta ikus-entzunezkoa / multimedia 	<p>Hamar domeinu kultural:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ondarea 2. Agiritegiak 3. Liburutegiak 4. Liburua eta prentsa 5. Arte eszenikoak 6. Ikusizko arteak 7. Arkitektura 8. Ikus-entzunezkoak eta multimedia 9. Publizitatea 10. Eskulangintza
<p>Sei funtzio kultural:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Kontserbazioa 2. Sorkuntza 3. Ekoizpena 4. Hedapena 5. Merkataritza 6. Gaikuntza 	<p>Sei funtzio kultural:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Sorkuntza 2. Produksioa eta edizioa 3. Hedapena eta merkataritza 4. Begiratzea 5. Hezkuntza 6. Kudeaketa / erregulazioa
	<p>Bost dimentsio:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ekonomia 2. Enplegua 3. Kontsumoa 4. Finantzaketa 5. Praktikak eta parte-hartze soziala



Azkenik, aipatzekoak dira ereduak **kanpora utzi dituenak** ere:

- Fabrikazioa ez da, berez, kultura-jarduera bat, baizik eta kulturari laguntzen dion jarduera industrial bat. Laguntzarako produktuen fabrikazioaren jarduera kanpoan uzteko erabakia kulturaren ikuspegitik haiek neurtu ezinari zor zaio. Zein da produktu horien garrantzi kulturala?
- Inprimatze-jarduerak ere zalantzan jartzekoak dira: ondasun kulturalen lehen ekoizpenerako jarduera industrialak diren arren, ez baitira berezko eta eskubidezko kultura-jarduerak. Bestalde, ezinezkoa gertatzen da hizpide ditugun jarduera horien parte kulturala estatistikoki estimatzea. Erreproduktzio-jarduerak ez dira, berez, kultura-jarduerak; jatorrizko materialaren ekoizpena soilik jotzen da kultura-jarduera.
- Sistemaren software orokorra edo software-aplikazioak: Softwarearen industriak eta sektoreko ekonomiak garrantzi ekonomiko handia du, baina ez dago sektore kultural gisa tratatzerik.
- Informazio-jarduerak ere (telekomunikazioak) kanpoan uzten dira arrazoi berberengatik.
- Aisialdi-jarduerak (jolasak, entretenimendu-jarduerak, apustu-jokoak, etab) ez dira kulturalak.
- Turismo kulturala: ez dago definizio argirik, ez da identifika daitekeen jarduera bat, baizik eta bisitariek eduki ditzaketen hainbat esperientzia kulturalen multzo bat.
- Erreserba naturalak, zoologikoak edota lorategi botanikoak ere ez dira domeinu kulturaltzat hartzen. Izadia berez da sektore bat, eta faunaren eta floraren begiratzea eta zainketak urruti dago kultura-sorkuntzatik.
- Ornamentuzko produktuen fabrikazioa (zeramika, bitxiak, etab.) ez dago sartuta kultura-industrietan, jatorrizko eskulanak soilik baitira kulturalak.



3 Erronkak eta neurketarako tresnak

EAErako KSI sektorearen eredu kontzeptuala eta definizioak zehaztera igaro aurretik, premiazkoa da kontuan hartzea kultura-sektoreak dituen ezaugarriak eta bereizgarriak, hain zuzen ere, baldintzatu egin baitezakete analisia egiteko beharrezkoa den hurbilketa mota. Horrela, sektoreak berezkoak dituen bi elementuk baldintzatzen dituzte KSlek esku hartzen duten esparruen ezaugarriak:

Irabazi ekonomikoak bilatzea edo ez. Aurrean dugun testuinguruan, elkarrekin bizi dira merkatu librean bideragarritasun zaila duten kultura-jarduerak –horiei ez dago produktzio metodo industrialak aplikatzerik (funtsean, ondarea eta arteak)–, finantzaketa eta sostengu osagarria eskatzen dutenak, eta merkatuan lehiatzen diren beste batzuk, errentagarritasun ekonomikoa lortzea espero dutenak eta, beraz, irabazi-asmoak dituztenak (hau da, kultura- eta sormen-industriak).

Publikoaren eta pribatuaren arteko muga. Kultura-sektorearen ezaugarrietako bat politika publikoen esku-hartze handia da: beren helburuak hedatuz joan dira denboran zehar, eta zabaldu egin da beren sostengu-esparrua. Nolanahi ere, esku-hartze publiko hori ez da simetrikoa sektoreen artean, eta zuzeneko lotura du, beren balioa kolektiboki aitortzen zaien arren, zenbait kultura jardueraren bideragarritasun ekonomiko eskasarekin. Bestalde, hirugarren sektorea deituak edo irabazi-asmorik gabeko sektore pribatuak ere tradizio eta erro luzeak ditu kultura-sektorean. Hala, hirugarren sektoreak sustatzen ditu ekimen kultural asko. Azkenik, irabazi-asmoak dituzten enpresa pribatuak ere giltzarriak dira kultura-sektoreen jardueraren garapenean, argi eta garbi, bai kultura-industrietan bai sormen-industrietan. Hiru motatako agente hauen arteko bilguneak eta mugak ez dira beti argiak, eta gorago esan bezala, dinamika sektorialen edo testuinguru bakoitzeko tradizioen mende egoten dira: alde publikoak pisu handiagoa du europar kontinenteko tradizioan eta, aldiz, pribatua da nagusi, irabazi-asmoekin edo gabe, anglo-saxoien artean.

KSlek aztertzeko ereduak sektorearen jardura ekonomikoan oinarritzen dira, hau da, dauden premiak estaltzeko produktu, ondasun edo zerbitzuak trukatzeko prozesuan, zeinak aberastasuna sortzen baitu erkidegoan. Kultura- eta sormen-jarduerak balio sinbolikoetan eta/edo adierazpen artistikoetan oinarritutakoak dira. Merkatura zuzenduriko jarduerak edo merkatura orientatzen ez direnak hartzen dituzte barnean, irabazi-asmoak dituztenak eta ez dituztenak, eta edozein motatako agente ekoizle eta egiturek gauzatuak (norbanakoak, administrazioa, erakundeak, enpresak, taldeak, amateurak edo profesionalak). Salbuespen asko dauden arren eta mugak lausok badira ere, ondarea eta artea erdian kokatzen dituen eta kultura- eta sormen-industrietara eta industria laguntzaileetara hedatzen den zirkulu zentrokideen ereduari, ondoriozta daiteke esku-hartze publikoa gehiagotik (erdigunean) gutxiagora doala, eta pribatua gutxiagotik gehiagora (kanpoko zirkuluetan).



Kultura- eta sormen-jarduerak eratzten duten kontzeptu-esparru orokorretik abiatuta, sektore jakin batean eta balio-katean betetzen duen funtzioaren arabera, teorikoki deskribatzen dira eta jarduera estatistikoekin erlazionatzen dira, ekonomikoekin, batik bat (EJSN). Horrela, KSI sektorea kultura- eta sormen-jarduera ekonomiko multzo baten emaitza da.

Hori esan ondoren, komeni da argitzea ez dela beti erraza izaten Europako iturri estatistikoetan irabazi-asmoko sektoreak eta irabazi-asmorik gabek bereiztea, nahiz eta nazio barruko kontuetan sektore komertzialak (produktuak prezio ekonomikoki esanguratsuetan saltzen dituztenak) sektore ez-komertzialetatik (prezio hutsaletakoak) bereizten diren. Gainera, Europako Kontuen Sistemak (SEC95) arau gehigarriak ezartzen ditu merkatuko ekoizleak eta merkatukoak ez direnak bereizteko, irizpide honen arabera: salmentek ekoizpen-kostuen erdia baino gehiago estali behar dute.

Sektore publikoari eta pribatuari dagozkion enpleguak ere ez da bereizterik egoten merkatuari eta lan-indarrari buruzko iturri estatistiko nagusia den EU-LFSko datuetan. Gerta daiteke, orobat, unitatea (museo bat, antzoki bat, jaialdi bat) jabetza publikokoa izatea, baina etekinak lortzea unitatearen diru-sarrerara pribatuengatik. Hizpide dugun sektorean, kulturean, ez da erraza muga zehatzak markatzea. Edonola ere, merkataritza-jarduerak eta merkataritzakoak ez direnak bereiztea baliagarria da, bereizketa hori erabiltzen baita enpresen erregistroetan eta kontu-sistemetan.

Merkataritzatik kanpoko edo irabazi-asmorik gabeko sektorean, ESSnet-Cultureren txostenean adierazten den bezala, errealitate zeharo desberdinak aurki ditzakegu EB-27n, bai legeei, bai administrazioarekiko erlazioei bai garatzen dituzten jarduera motei dagokienez. Terminologiaren ikuspegitik ere hautematen dira desberdintasunak: ekonomia soziala, hirugarren sektorea, irabazi-asmorik gabeko sektorea, etab. Gauzatzen dituzten jarduerak kideen premiak estaltzera orientatzen dira, edo interes publiko zabalago batera, eta lehentasuna dute horiek etekinak lortzearen eta banatzearen gainetik. Doako edo ekonomikoki esanguratsuak ez diren prezioak ondasunak edo zerbitzuak hornitzen dituzte. Unitate instituzional publikoak izan daitezke, edo hainbat lege-formatako egitura pribatuak: irabazi-asmorik gabeko erakundeak, fundazioak, elkarteak, kooperatibak, etab. Beren ezaugarria da ezin direla diru-sarrerara, etekin edo bestelako finantza-irabazien iturri izan, ez beren buruari begira, ez-eta haiek sortu, kontrolatu edo finantzatzen dituzten erakundeentzat ere. Edo beren salmentak ez dira diru-sarreraren % 50era iristen eta, ekoizpen-kostuak estaltzeko, beste funts edo diru-laguntza batzuetara jo behar dute.

Gerta liteke borondatezko jardueren eta amateurren eremua merkataritzaz kanpoko ondasun eta zerbitzu kulturalen ekoizpenean sartzea ere; adibidez, hainbat pertsona boluntarioen lankidetzaz jaialdi bat antolatzen denean. Beste adibide bat teknologia berriei lotuta dago: eduki kulturalak gizarte-sareen bitartez zabaltzen ditugunean, ekoizle ekonomiko gisa jarduten ari gara. Zehaztu behar da, hala ere, irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek ematen dituzten merkataritzaz kanpoko zerbitzuek – bereziki garrantzitsuak aisialdiko eta kultura arloko jardueretan –, izatez, beren NACE-JPS kode propioa dutela (949916 Elkarre kultural eta aisialdikoek emandako zerbitzuak).

Hala ere, ESSnet-Culturek adierazi duen bezala, merkataritzaz kanpoko kultura-zerbitzuen datu-bilketak ez daude Europa mailan harmonizatuta, eta nazio mailan ere gabeziak dituzte, merkatura orientaturiko jarduerak ez bezala.



Kulturaren sektorea neurtu ahal izateko egon daitezkeen berezitasunak eta arazoak ikusita, azterketarako eredu kontzeptual baten helburua datu fidagarriak eta alderagarriak biltzea da. Horrela, informazioak ahalik eta objektiboena izan behar du; beraz, helburu horiek lortzeko biderik eraginkorrena kultura-jarduerak erlazionatzea da jada existitzen diren sailkapen estatistikoekin: Ekonomia-Jardueren Sailkapen Estatistikoa (NACE-EJSN), berori baita EBko inkesta harmonizatuetan erabiltzen den sailkapen estandarra. Hori da, halaber, UNESCOk hautatutako bidea.

NACE-EJSN da, hortaz, informazioa antolatzeke eta estandarizatzeko tresna, eremu ez-estatistikoetan ere –erregulazio sozial eta fiskala, tarifa-sistemak, akordio komertzialak, etab.– erabiltzen den tresna erkidea. NACEk berezkoa duen unitate estatistiko ekonomikoak (enpresa- eta instituzio-unitateak) ez du oztopatzen ez behaketa soziala, ez norbanakoen kultura- eta sormen-ondasun eta zerbitzuen kontsumoarena, ez-eta praktika kulturalena ere. Gainera, NACEren ikuspegitik jarduteak ez du esan nahi analisia forma juridikoaren ikuspuntutik soilik orientatzen denik: lan amateurra, irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta eremu instituzionala inkesten metodologiekin loturik daude (laginak hartzea, aldagaien hautaketa) eta ez jarduera estatistikoekin.

Azkenik, adierazi behar da, orobat, badirela jarduera kulturalak hautatzeko baliagarriak diren beste sailkapen batzuk ere: Jardueraren araberrako Produktuen Sailkapen estatistikoa (JPS), NACErekin zuzenean lotua; eta Langintzen Nazioarteko Sailkapen Uniformea (LNSU), enplegua aztertzeke erabiltzen dena.

4_KSI eredu bat EAerako

4.1_Hiru irizpide eta premisa bat

EAerako KSI ereduaren diseinuak ondorengo irizpideok hartzen ditu kontuan:

Alderagarritasuna. Existitzen diren ereduaren zailtasun nagusietakoa da, behin eta berriro adierazten duten bezala informazioa aztertzeari emanak diren organismoek (ESSnet-Culture) eta orain arte egin diren azterlanek. Kulturaren eremura soilki mugatuta zailtasunak baldin badaude herrialdeen arteko datuak harmonizatzeko, sormen-ereduak gehitzen zaizkienean arazoa areagotu egiten da. Beharrezkoa da gutxieneko erkide bat definitzea, berorretara beste eremu batzuk gehitu ahal izateko. Ildo horretan, zirkulu zentrokideetan oinarritutako ereduak bide ematen dute erdiguneko eremu horiek laguntza-izaera dutenetatik bereizteko. EAeren kasuan, Europako esparruak markatzen dituen jarraibide eta irizpideetara egokitu beharko da, nahitaez.

Sendotasuna. Ereduak azentua non jarri baldintzatzen duten helburu eta irizpide desberdinei erantzuten diete. KSlen kasuan, garapen ekonomikoari eta enpleguari egiten dioten ekarpenari buruzko argudioak indartzen dituzten eremuak (eduki digitalak) edota funtzioak (fabrikazioa) barnean hartzerak makurtzen da balantza. Horrek sendotasun eztabaidagarriko planteamenduak sor ditzake. Beharrezkoa da argitzea zer sektore edo domeinu sartzen diren eta zer nolako helmena duten. Halaber, gaur egungo jardueren (EJSN) eta langintzen (LSN) sailkapenen aplikazioa ahalbidetzen duen bideragarritasun praktikoaren analisi bat egin beharra dago.

Egokigarritasuna. EAerako KSI eredu baten diseinuak erkidegoko berezitasun propioak ere hartu beharko ditu kontuan. Horren adibide argi bat bi hizkuntza ofizialen existentzia da; beraz, ezinbestekoa gertatzen da hizkuntzaren industriak barnean hartzea. Aintzat hartzeko beste jarduera bat gastronomia da, herrialdearen ezaugarrietako bat baita, nahiz eta bide estatistiko soiletatik barnean hartzea konplexuagoa gerta daitekeen. Hori dela eta, agian aintzat hartu behar litzateke sailkapen ofizialetan (EJSN) behar bezalako sakontasunez tratatu gabe dauden eremuak aztertzeke metodologia alternatiboak erabiltzea.

Baina, diseinua gidatuko duten irizpideak ezartzeaz gainera, ereduak funtsezko premisa bat hartzen du oinarritzat: tradizioz kulturaren parte diren eremu eta sektore guztiak hartzen ditu barnean (ondarea, arteak eta kultura-industriak). Guztiak mantentzen dira, nahiz eta beharrezkoa izango den gogoeta egitea eta argudiatzea elkarrekin nola lotzen diren, zein diren beren barne-mugak eta, azkenik, zer jarduera sartzen diren eremu edo sektore bakoitzean.

Horrela, bada, gehituko diren sektoreetara orientatuko da eztabaida. Sormen-industrietara hedatzen den erdigune kultural batetik abiatzen gara; beraz, eztabaida hedapen horren mugetan zentratzen da.



4.2 KSI sektorearen definizioa

Azterlan honen helburua KSlen azterketarako eredu kontzeptual bat proposatzea da. Eragin horretarako, lehen urratsa azterketaren xede izango dena definitzea izango da. Eta hari horri tiraka ikusten dugu gaia tratatu duten erakundeek eman dituzten definizioen artean aldaketak daudela:

DCMS: «Norbanakoaren sormenean, trebetasunean eta talentuan jatorria duten industriak, aberastasuna eta enplegua sortzeko ahalmena dutenak, jabetza intelektuala sortzearen eta ustiatzearen bitartez».

NBE/UNCTAD: «Honela defini daitezke 'sormen-industriak': sormena eta kapital intelektuala lehen mailako input modura erabiltzen dituzten ondasun eta zerbitzuen sorkuntza-, ekoizpen- eta banaketa-zikloak. Ezagupenean oinarritutako jarduera multzo bat hartzen dute barnean eta ondasun eta zerbitzu intelektual edo artistiko ukigarriak ekoizten dituzte, sormen-educia, balio ekonomikoa eta merkatu-helburuak dituztenak».

EUROPAR BATASUNA: «Kultura material gisa erabiltzeaz gainera, dimentsio kulturala dutenak, beren ekoizpena batez ere funtzionala izan arren. Horien artean sartzen dira arkitektura eta diseinua, sormenezko elementuak txertatzen baitituzte prozesu zabalagoetan, baita diseinuaren, modaren edo publizitatearen tankerako azpisektoreak ere».

Europar Batasunaren aukera da proposatzen dugun eredura gehien hurbiltzen dena. Bere bakuntasunean, kulturaren arloa nabarmentzen du, bestiek ez bezala, haien oinarritzko kontzeptua sormena baita.

Oinarri kulturalaren alde egiteak sendotutako kontzeptu batetik abiatzen dela esan nahi du. Etengabe errebisioan dagoen arren eta zalantzan jartzen bada ere definizioen eta perimetroen ikuspuntutik, adostasun maila handia dago kulturaren kontzeptuari dagokionez. Hala, esan daiteke kultura-politiken eginbide eta ardura den hura dela kultura. Kontzeptualki anbizio gutxiko definizioa da, beharbada, baina oso argigarria. Kontzeptuaren hedapenari dagokionez, logika diakronikoa jarraitzeak, era berean, kulturaren ideia ardatz gisa hartzea esan nahi du, eta

gainerako guztia handik garatzea. Horrela, hedapena kulturaren arlotik beste sektoreetara agitzen da, non arlo kulturalak jarraitzen duen, era funtzionalean bada ere. Kultura da KSlen ezaugarri nagusia.

Sektorea definitzeko oinarri gisa sormen kontzeptua hautatzeari dagokionez, sortzeko edo asmatzeko ahalmen gisa ulertuta, generikoegia litzateke eta berrikuntza guztia hartuko luke barnean. Edozein jarduerak du sormen-osagai bat eta sektore gehienei aplikatzea legoke.

KSlek ezaugarritzat dituzten hiru bereizgarri nagusi partekatzen dituzte:

— adierazpen kulturalen kontzeptuarekiko lotura. Kultura-sektore guztiek sortzen dituzte adierazpen kulturalak, ondaretik hasi eta arteetara eta kultura-industrietara heldu arte. Baina sormen-industrietatik ere erator daitezke adierazpen kulturalak, hala nola arkitektura, diseinua, hizkuntza, gastronomia, publizitatea, eskulangintza, etab.

— sinbolismoan oinarritzen dute beren sorkuntza eta komunikazioa. Kultura- eta sormen-elementuen erabilera-balioa berezkoa edo sinbolikoa da, erabiltzaileak egotzia (subjektiboa), horrek ezaugarritzen eta bereizten du beste ondasun batzuetatik, berauen balioa teknikoa baita (objektiboa).

— jabetza intelektualeko eskubideekin erlazionatuta daude (egile-eskubideekin batez ere). Eduki kultural gehienak egile-eskubideen pean daude; hori da beren ezaugarria. Hala ere, babestuta dagoen guztia ez da kulturala eta, halaber, kulturala den guztia (ondasunak eta zerbitzuak) ez dago nahitaez babestuta.



4.3_ Ereduaren orientazioak eta helmena: sektoreak

Atal honetan, EAEko KSletako eredia osatzen duten KSlen sektoreen egitura proposatzen da; baita sektore bakoitzean sartuko diren jardueren helmena ere. Baina egitura deskribatu aurretik, eredian sartzen direnak eta kanpoan uzten direnak argitzen dituzten hiru orientazio orokor hartu behar dira kontuan.

Balio-kateari dagokionez: kultura-industrietan balio-kateko funtzio guztien multzoa hartzen da aintzat: Sorkuntza; ekoizpena-argitalpena; banaketa; merkataritza eta zabalkundea; begiratzea; hezkuntza; kudeaketa eta erregulazioa. Hala ere, sormen-industrien kasuan, sorkuntza soilik hartuko da kontuan, balio erantsia sortzen duen sormen-jarduera. Hala, arkitekturaren arkitekturako zerbitzuak sartzen dira, ez eraikuntza; modan, berriz, diseinu- eta patroigintza-jarduerak sartzen dira, baina ez fabrikazioa, ez-eta merkataritza ere.

Irizpide subjektiboan aplikazioari dagokionez, subjektibotasuna ekiditerik ez badago ere politika kulturalen aplikazioaren ikuspegitik kultura-industriak perimetratzean, ikuspuntu estatistikotik ez da aplikatzen balio-judiziorik sektorean sartu beharreko jarduerak haztatze orduan. Kulturaren azterketan lan egiten duten organismo estatistikoez ezartzen duten konbentzioan oinarriturik, deskribatzen dituzten jarduera ekonomikoez ezartzen dituzten jarduerak sartzen dira, baina irizpide subjektiborik aplikatu gabe. Adibidez, argitalpena oso-osorik sartzen da, eduki mota ezertarako kontuan hartu gabe. Kontrara, sormen-industriari balio-judizioak aplikatuko zaizkie. Adibidez, gastronomian, «goi» gastronomia soilik sartzen da, gastronomia sortzailea, ez jatetxe eta janari-postuetako jarduera guztia. Kontuan eduki behar da hautaketa subjektibo horrek zailtasun praktikoak ekar ditzakeela tresna estatistikotik (EJSN, JPS, LSN) erabiltzeko orduan eta baliteke hurbilpen kualitatiboak beharrezkoak izatea.

Jarduera eta zerbitzu laguntzaileei dagokienez: Kultura- eta sormen-jarduerak aurrera eramateko beharrezkoak izanik, berez kulturaren eta sormenaren arlokoak ez diren eta haiei lotuta dauden jarduerak dira.

Aparte uzten dira KSlekin erlazionatutako ekoizpeneko eta zerbitzuetako jarduera laguntzaileak. Tratamendu horrek jarduera horiek gehitzeko edo kentzeko aukera emango du, KSI sektoreen «gune gogorren» edukia aldatu gabe. Gauza bera aplika dakioke kultura-hezkuntzari.

Sektoreei buruzko planteamendu orokorra honako hau da:

a) Kultura-sektoreak:

- Ondarea, agiritegiak eta liburutegiak: barnean sartzen dira ondare materiala eta ukiezina, museoak, agiritegiak eta liburutegiak.
- Ikusizko arteak • Arte eszenikoak
- Musika • Ikus-entzunezkoak eta multimedia (zinema, telebista, irratia)
- Liburua eta prentsa • Eskulangintza

Kultura-sektoreetan balio-kate osoa hartzen da barnean, eta ez da edukiaren araberako murrizketarik aurreikusten.

Eduki digitalak sektore bakoitzaren barruan jasoak daude.

Eskulangintzak trataera berezia du: jarduera ekonomikoen bitartez analisi estatistikotik egiteko bideak ez du aukerarik ematen eskuz egindako fabrikazioa soilik identifikatzeko. Kultura-sektore bakarra da zeinaren analisiak bere jarduera ekonomikotik bestelako hurbilpenak eskatzen dituen: administrazio-erregistroen edo langintzen bitartez.

b) Sormen-sektoreak:

- Sormen-industriak: arkitektura, publizitatea, bideo-jokoak, diseinua
- EAEko sormen-industria bereziak: hizkuntzaren, modaren eta gastronomiaren industriak.

Eduki digitalen sektorea (softwarea eta aplikazioak) kanpoan uztea proposatzen da, izan ere, interes ekonomiko nabarmeneko sektorea izan arren, ez baita KSleko sektore propio bat. Izatez, kultura arloari lotutako eduki digitalen jarduerak sektore bakoitzean sartzen dira: ondaretik hasi eta, beste batzuen artean, ikus-entzunezkoetara edo musikara heldu arte. Ez da ahaztu behar, bestalde, kultura- eta sormen-sektorean arlo digitalak izan duen agerpenak zenbait sektore praktikan desagertzea ekarri duela.

5_ Jardueren definizioak eta deskribapena

Atal honetan aurkezten den informazioa eranskinean jasota dauden azterketa-fitxen xehetasunekin osatzen da. Erabilitako tresnen azalpen labur bat aurkezten da eta, ondoren, EAEko KSIko sektoreen proposamenean barne-hartzen diren sektoreak definitzen dira.

5.1_ Azterketa-eskema

Sektore bakoitzaren garrantzia ulertu ahal izateko –bai balio-kateko funtzioen ikuspuntutik, bai barnean hartzen dituen jarduerenetik– haietako bakoitzaren analisi zehatza egingo dugu ESSnet-Culturek planteatzen duen egiturari jarraituz, bi arrazoiengatik: alderagarritasuna eta aplikatu daitezkeen erreminta estatistikoen harmonizazioa.

LSN 2011: Langintzen Sailkapen Nazionala, Langintzen Nazioarteko Sailkapen Uniformearen (LNSU-08) jarraibideen arabera egindako sailkapena da.

Sektoreen deskribapena sailkapeneko tresna estatistikoen bitartez egiten da:

EJSN 2009-NACE 2. ber.: jarduerak identifikatzeko Ekonomia-Jardueren Sailkapena baliatuko dugu, 4 digiturekin. Hori da eska daitekeen xehetasun maila kultura- eta sormen-jarduerari buruzko datuak lortzeko.

JPS-2008: Produktuen Sailkapena; hain zuzen ere, NBEk elaboratu eta gomendatutako Produktuen Sailkapen Zentralaren (PSZ) Europako bertsioa da. JPS legez loteslea da Europako Erkidegoan. Produktuen ekoizpen-jatorriaren irizpidea errespetatzen du, hau da, jatorrian duten jarduera ekonomikoaren arabera multzokatzen dira. Horrela, JPS-2008ren egitura NACE 2. ber izeneko jarduera ekonomikoaren Europako sailkapenera egokitzen da.



5.2_KSI sektoreen definizioak

5.2.1. Kultura-sektoreak

Ondarea, museoak, agiritegiak eta liburutegiak:

Ondarea, zentzu zabalenean ulertuta, iraganetik jaso dugun legatua da, orainaldian bizi duguna eta etorkizuneko belaunaldiei transmitituko dieguna. Ondasun kulturalaren kontzeptutik eta transmititu beharreko legatuaren ideiatik abiatuta, errealitate zabala barnean hartzen duen makro-sektorea da. Hor sartzen dira interes artistikoa, historikoa, paleontologikoa, arkeologikoa, etnografikoa, antropologikoa, zientifikoa edo teknikoa, linguistikoa edo industrialak duten higiezinak eta objektu higigarriak eta ondare dokumentala eta bibliografikoa. Objektuak, eraikinak edo paisaiako adierazpen materialak bezalako forma ukigarrien eta giza sormenaren adierazpen ukiezinen bitartez adierazten da.

Hor sartzen dira, balio artistiko eta kulturala duten ondasunez gainera, museo, agiritegi eta liburutegietako zerbitzuak. Esku-hartze publiko handiko sektorea da; esan behar da, gainera, lege espezifikoek zehaztu eta araututako sektore bakarra dela.

Sektoreko jarduerak (EJSN09)	Lotutako zerbitzuak
9102 Museuetako jarduerak	7219 Beste ikerketa eta garapen esperimental batzuk natur zientzietan eta zientzia teknikoetan
9103 Toki eta eraikin historikoen kudeaketa	
9105 Liburutegien jarduerak (NACE 9101)	7220 Ikerketa eta garapen esperimentaleko zerbitzuak beste gizarte zientzia batzuetan
9106 Agiritegien jarduerak (NACE 9101)	
4779 Bigarren eskuko artikuluen txikizkako merkataritza establezimendu baimenduetan	

Ikusizko arteak

Ikusizko arteetan sartzen dira margolaritzarekin, eskulturarekin, grabatuarekin eta Arte Ederretako beste jarduera artistiko batzuekin lotura duten arte plastikoak; baita argazkigintza, arte digitala edo adierazpen artistiko zenbait ere, hala nola *performancea*, bideo-instalazioak, etab. Horrela, eskuz egindako sormen-lanarekin lotutako tradiziozko jarduera artistikoari irudian eta interaktibitatean oinarritutako diziplina berriak erantsi zaizkio.

Sortzaileak ez ezik, hor sartzen dira ekoizpen-, erakuste-, hedatze- eta merkaturatze-zereginetako jarduerak eta agenteak.

Sektoreko jarduerak (EJSN09)
9003 Sormen artistikoa
7420 Argazkilaritzako jarduerak
8552 Kultura-hezkuntzako zerbitzuak
4778 Artikulu berrien txikizkako merkataritza establezimendu baimenduetan

Arte eszenikoak

Antzerkia eta dantza ez ezik, beste diziplina batzuk ere hartzen ditu barnean, hala nola, zirkua, opera, bertsolaritza eta agertoki batean adierazi daitezkeen antzeko beste batzuk. Beren ezaugarria da zuzenean kontsumitzen direla, berehala, eta publikoa bertan dela, ikuskizuna gauzatzeko unean.

Arte eszenikoen parte diren jarduera eta agenteen artean daude sortzaileak, konpainiak, banatzaileak eta programatzaileak; hau da, aretoak eta espazioak bezala, jaialdiak, zirkuituak eta haiek antzezten diren ekitaldiak ere izan daitezke.

Sektoreko jarduerak (EJSN09)	Lotutako zerbitzuak
9001 Arte eszenikoak	7990 Beste erreserba zerbitzu batzuk eta horiekin uztartutako jarduerak
9002 Arte eszenikoen jarduera lagungarriak	
9004 Ekitaldi aretoen kudeaketa	9329 Beste aisialdi eta entretenitzeko jarduera batzuk
8552 Kultura-hezkuntzako zerbitzuak	



Musika

Musikaren sektorea arte eszenikoen eta industriren arteko elkargunean kokatzen da, bai zuzeneko kontzertuak bai industria diskografikoa hartzen baititu barnean. Arrazoi horregatik, zenbat eredutan banatu egiten da, alde bat arte eszenikoetan eta bestea ikus-entzunezkoetan. Kasu honetan, sektore independente modura tratatu da, bere bakantasuna eta sektorearen espezializazio ezaugarria kontuan hartuta.

Sektorearen ezaugarri bereizgarriak dira fonograma edo grabazio-unitatea, edozein mota eta edozein euskarririkoa, eta ekoizten duen industria diskografikoa; baita musika-jarduerari lotutako zerbitzuak ere (argitaletxea, *management*, kontzertuen sustapena, etab.). Gainerako kultura-sektoreen kasuan bezala, balio-kateko funtzioen multzo osoa hartzen da kontuan.

Sektoreko jarduerak (EJSNo9)	Industria laguntzaileak
5920 Soinua grabatzeko eta musika argitaratzeko jarduerak	2640 Kontsumoko produktu elektronikoen fabrikazioa
9002 Arte eszenikoen jarduera lagungarriak	3220 Musika tresnen fabrikazioa
9004 Ekitaldi aretoen kudeaketa	268 Euskarri magnetiko eta optikoen fabrikazioa
8552 Kultura-hezkuntzako zerbitzuak	
4763 Musika eta bideo grabazioen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan	

Ikus-entzunezkoak eta multimedia (zinema, telebista, irratia)

Digitalizazioaren agerpenak eragin bortitza izan badu ere kultura- eta sormen-sektore guztietan, ikus-entzunezkoen sektorea errotiko eraldaketa bizitzen ari da ekoizpen- eta banaketa-prozesuetan. Etengabe birdefinitzen eta hedatzen ari den sektorea da eta eduki digitalen, bideo-jokoen, publizitatearen edota IKTen edo interneteko zerbitzuen operatzaileen sektoreak ere barnean hartzeko joera du.

EArako proposamena honetara mugatzen da: ikus-entzunezkoen eta multimedia sektorearen barruan sartzen ditu ikus-entzunezkoen ekoizpen- eta banaketa-jarduerak, zinema erakustekoak, telebista eta irratia. Hala, hor sartzen dira, film, bideo, telebista-saio edo telebistarako iragarkien ekoizpena; produkzio ondoko jarduerak (argitalpena, transferentzia, tituluak jartzea, azpitoluak jartzea, kredituak, azpitoluak, ordenagailuz ekoiztutako grafikoak, animazioak eta efektu bereziak, film zinematografikoaren garapena eta prozesamendua, filmen laborategiak eta animazio-filmetarako laborategi berezien jarduerak). Banaketaren barruan sartzen dira zinema-aretoetara, telebista-kateetara eta operadoreei filmak, bideokasetak, DVDak eta kideko ekoizpenak banatzea; baita ekoizpenen banaketa-eskubideak eskuratzea ere. Azkenik, zinema-areto eta proiektiorako beste instalazio batzuetako (aire librean, zineklubak) film-erakusteak ere sartzen dira.

Irratiko jarduerari dagokienez, barnean hartzen ditu irratia-instalazioen bidez audio-seinalea transmititzea eta irratia-programazioa airetik, kabletik eta internetetik transmititzeko erraztasunak. Hor sartzen da, era berean, irratia-erakundeekin integratutako datuen transmisioa ere.

Telebistako jardueren barruan daude telebistako programazio oso bat eratzeke behar direnak: erositako programak (filmak, dokumentalak, etab.), etxean ekoiztutako saioak (tokiko albisteak, zuzeneko emankizunak) edota bien arteko konbinazio bat. Telebistako programa oso bat hura ekoizti duenak edota kanpoko banatzaile batek transmiti dezake, adibidez, kable edo satelite bidezko telebista-enpresak edo hornitzaileak. Programazioa jeneralista edo izaera espezializatukoa izan daiteke (adibidez, formatu mugatuak: albisteak, kirolak, hezkuntza edo gazteei zuzendutako programazioa) eta irekia edo ordainpekoa izan daiteke. Mota honetan sartzen da telebista-erakundeekin integratutako datuen transmisioa ere.



Sektoreko jarduerak (EJSN09)	Industria laguntzaileak
5915 Zinema eta bideoeko produkzio jarduerak	2640 Kontsumoko produktu elektronikoaren fabrikazioa 268 Euskarri magnetiko eta optikoaren fabrikazioa
5916 Telebista saioetako produkzio jarduerak (NACE 5911)	
5912 Zinemako, bideoa eta telebista saioetako produkzio ondoko jarduerak	
5917 Zinema eta bideoa banatzeko jarduerak	
5918 Telebista saioak banatzeko jarduerak (NACE 5913)	
5914 Zinema erakusteko jarduerak	
6010 Irrati-difusio jarduerak	
6020 Telebistako saioak programatu eta eskaintzeko jarduerak	
6391 Berri agentzien jarduerak	
7722 Bideokaseten eta diskoen alokairua	
4763 Musika eta bideo grabazioen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan	

Liburua eta prentsa

Liburua eta prentsa sektore berean biltzen ditugu, nahiz eta prentsa, irratiarekin eta telebistarekin batera, komunikabideen sektorean sailkatu ohi den. Bereiztea aukeratu dugu Europako jarraibideei kasu eginez, harmonizazio eta alderagarritasun arrazoengatik.

Liburuaren sektoreak hiru jardura hartzen ditu barnean, argitalpena bera, handizkako banaketa eta merkataritza (liburu-dendak eta txikizka saltzeko beste gune batzuk). Argitalpenean inprimatutako liburuak, formatu elektronikoa dutenak eta audio-liburuak sartzen dira. Baita liburuaren, katalogoen, liburuxken, hiztegi eta entziklopedien, atlas eta mapen argitalpena ere.

Prentsan honako jardura hauek sartzen dira: egunkariaren argitalpena, publizitatekoak barne, astean gutxienez lau aldiz ateratzen direnak; aldizkako argitalpenak eta beste aldizkari batzuk, astean lau aldiz baino gutxiagotan ateratzen direnak. Edozein formatutan egon daitezke (papera, elektronikoa edo internet). Sektore honetan daude, orobat, komunikabideak irudiz eta edukiz hornitzen dituzten albiste-agentziak. Liburuaren kasuan bezala, balio-kate osoa sartzen da sektorearen barruan: argitalpena, banaketa eta egunkari eta aldizkariaren txikizkako merkataritza.

Arte grafikoen industria laguntzaileari dagokionez, baldin eta jardueraren parte bat liburuaren munduari eskaintzen bazaio, kontuan hartuko da, baina tratamendu berezitua emanda, liburu eta prentsaren jardueraren bihotzera gehitzeko edo kentzeko modua duela.

Sektoreko jarduerak (EJSN09)	Industria laguntzaileak
5811 Liburuaren argitalpena	1811 Egunkariak inprimatzea
5813 Egunkariaren argitalpena	1812 Inprimaketako eta arte grafikotako beste jardura batzuk
5814 Aldizkariaren argitalpena	
5819 Beste argitaratze jardura batzuk	1813 Aurreinprimaketako eta euskarriak prestatzeko zerbitzuak
6391 Berri agentzien jarduerak	1814 Koadernaketa eta horrekin zerikusia duten zerbitzuak
4761 Liburuaren txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan	Lotutako zerbitzuak
4762 Egunkariaren eta papergintzako artikuluen txikizkako merkataritza establezimendu	
	7312 Hedabideak ordezkatzeko zerbitzuak
	6399 Beste inon sailkatu gabeko beste informazio zerbitzu batzuk

Eskulangintza

Eskulangintza jardura bakana da: alde batetik, azken urteotan adostasuna dago KSlen sektore gisa eransteko, nahiz eta ikuspegiak aldatzen diren: batzuek alde kulturala nabarmentzen dute eta besteek alde industrial; bestalde, bere arautegi propioak –foru-aldundiek arautuak– dituen jardura da. Eskulangintzaren jardura aztertzeko modua eta bidea aldundietako eskulangileen erregistroek emango digute.



Europar Batasunaren ikuspegitik, ekoizpen bakarreko sorkuntza gisa hartzen da, bere alderdi artistikoan azentua jarririk; horregatik ez dira sartzen eskulangintza industrialak. Eskulangintza artistikoei trebetasun tradizionalak eskatzen dituzte, ezagutza teknikoak eta konplexuak materialak eraldatzeko eta benetako ezaugarri artistikoa duten piezak edo serie txikiak ekoizteko. Material motaren (zura, ehungintza, larrugintza, zeramika, etab.) edo eskulangintza funtsezkoa duten sektoreen arabera sailkatu ohi dira (adibidez, arte eszenikoetarako jantzigintza, artelaren zaharberritzea, musikako luthierak, etab.).

EAEan, aldundietako arautegien eskulangintzako definizioek partekatzen dute eskulangintza-jarduerak produktu banakako bat duela emaitza modura, eta kanpoan uzten dute ekoizpen industrial edo azpimarratzen dute eskuz egindako lanaren ekarpenak makineria-aplikazioen gainetik egon behar duela. Baina ñabarduretan bereizten dira: berez kulturala ez denarekiko baztertzailena Arabakoa da (kanpoan uzten ditu kontsumo-ondasunen eskulangintza eta industriaren eta nekazaritzaren osagarria eta zerbitzuen eskulangintza); Bizkaiak barnean hartzen ditu horiek, elikadurako kontsumo-ondasunak salbu; eta Gipuzkoakoa da zabalena.

Eskulangintza-jarduerak ez dira zehazten EJSNen bidez, ez baita sektore honetarako analisi-tresna bideragarria.

5.2.2. Sormen-sektoreak

Arkitektura

KSlen esparruan, arkitektura-zerbitzuak soilik hartzen dira kontuan, eta kanpoan uzten dira ingeniaritza- eta eraikuntza-jarduerak. Zerbitzuen ikuspegitik, asmoa sormen-zerbitzuak eskaintzea da, azken produktua agian kulturala ez bada ere. Horrela, bada, arkitekturako zerbitzuek ematen duten sormen-funtzioa edo -jarduera soilik hartzen da barnean.

Hor sartzen dira arkitekturako aholkularitza-zerbitzuak, eraikinen diseinuari eta marrazketari (planoak eta krokisak) dagokion guztia, eta hiri- edo landa-plangintzari eta paisaia-arkitekturari dagokiona.

Sektoreko jarduerak (EJSN09)

7111 Arkitekturako zerbitzu teknikoak

Publizitatea

Publizitatez at ulertzen da publizitate-zerbitzu gama zabal bat ematea (baita azpikontratatzeko badira ere), iragarkiak, sormen-zerbitzuak eta publizitate-materialen ekoizpena eta erosketa barne direla. Hala, hor sartzen dira kanpainak sortzea eta gauzatzea (publizitate-iragarkiak sortzea eta edozein komunikabidetan edo Interneten jartzea; kanpoko publizitatea sortzea eta jartzea; aireko publizitatea; publizitateko materiala edo laginak banatzea edo entregatzea; standak edo beste egitura edo espazio batzuk sortzea); eta bezeroak erakartzera edo mantentzera zuzendutako marketin-kanpainak eta beste publizitate-zerbitzu batzuk: produktuen sustapena; zuzeneko marketin-publizitatea; espazio komertzialena; marketin-aholkularitza.

Kulturaren ikuspuntu hertsitik publizitate-materialen ekoizpena (standak, inprimatutako materiala, etab.) eta sustapena edo marketina barnean hartzeko erreparatuak egon daitezkeen arren, analisiak egiteko bideragarritasun praktikoa dela eta, bai publizitate-diseinua, bai garapen kontzeptualen zerbitzua, bai publizitateko zerbitzu osoen prestazioa (plangintza-, sorkuntza- eta egikaritze-zerbitzuak) sartuta geratzen dira.

Sektoreko jarduerak (EJSN09)

7311 Publizitate agentziak

Bideo-jokoak

Bideo-jokoaren sektoreari ikus-entzunezkoen eta multimedien sektoretik aparte tratatzea bereziki ematea proposatzen da. Honela definitzen da: pantaila batean esperientziak simulatzea ahalbidetzen duen entretenimendu interaktiborako softwarearen garapena, banaketa eta salmenta. Garapenean sartzen dira ideien sorkuntza (generoa, jokatzeko modua eta story board deitua), diseinua (gidoia, soinua, mekanika eta programazioaren diseinua), plangintza, ekoizpena, probak, azken ekoizpena eta mantentze-lanak.

Sektoreko jarduerak (EJSN09)

5821 Bideo-jokoaren argitalpena

4763 Musika eta bideo grabazioen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan

Industria laguntzaileak

2640 Kontsumoko produktu elektronikoen fabrikazioa

268 Euskarri magnetiko eta optikoen fabrikazioa



Diseinua

Diseinua ikuspegi zabal eta ireki batetik edo aplikaziotik hurbilagoko perspektibatik defini daiteke, hura osatzen duten azpisektoreetatik abiatuta. Kontzeptuaren ikuspuntutik, honela uler daiteke diseinua: objektuak, irudiak edo espazioak sortzeko xedea duen lan egituratuko sormen-prozesu bat, zerbitzuak sortzeko ere arrakastaz erabiltzen dena eta, are gehiago, enpresa-estrategia berritzaileak sortzeko. Berrikuntzari lotutako ikuspegi honek diseinuaren kontzeptua hobeto deskribatzen badu ere, diseinuaren sektorea aztertzeko, sailkapen ekonomiko estandarizatuan jasota dauden diseinu-jardueren bidetik jotzeko proposatuko genuke. Hala, diseinu espezializatuko jardueren barruan sartzen dira: altzariak, barne-dekorazioko beste artikulua batzuk eta etxerako beste zenbait ondasun; diseinu industrialak, hau da, produktuen erabilera, balioa eta itxura optimizatzen duten diseinu eta espezifikazioen sorkuntza eta garapena, produktuaren material, mekanismo, forma, kolore eta akaberari buruzko erabakiak barne direla, kontuan izanik bezeroen ezaugarriak eta beharrianak, segurtasuna eta merkatuak zer eskatzen duen, banaketa, erabilera eta mantentze-lanak; diseinu grafikoak; eta barrualdeen dekorazioak.

Sektoreko jarduerak (EJSN09)

7410 Diseinu espezializatuko jarduerak

Hizkuntzaren industriak

Itzulpengintzari, edukiei, hizkuntzen irakaskuntzari eta hizkuntza-teknologiei zerbitzuak ematen dietenak edo haiei laguntzeko eta sostengatzeko produktu espezifikoak sortzen dituztenak dira, munduko merkatuan jarduera horietan sortzen diren premiei erantzuteko.

Sektoreko jarduerak (EJSN09)

7430 Itzulpengintza eta interpretazioko jarduerak

8559 Beste inon sailkatu gabeko hezkuntza.

Moda

Modari lotutako diseinu espezializatuko jarduerak bereiztea proposatzen da, hala nola ehungintza-modaren diseinua, jantziak, oinetakoak, bitxiak edo modarekin erlazioa duten beste ondasun batzuenak, eta espazio propio bat ematea, modaren sektore gisa. Kanpoan uzten da fabrikazioa, eskuz eta neurririk egiten dena salbu. Merkataritza ere kanpoan uzten da.

Sektoreko jarduerak (EJSN09)

7410 Diseinu espezializatuko jarduerak

Gastronomia

Gastronomia KSletako sektore gisa sartzeari berarekin darama jarduerako sormen arloa bereizi beharra. Beraz, ez dira sartzen herrialdeko jatetxe eta zerbitzu gastronomiko guztien aktibitateak, baizik eta jarduerari balio erantsia dakarkiotenak bakarrik, sormenaren, ikerketaren edo teknologia aplikatuaren ikuspegitik egiten dituzten berrikuntza eta esperimentazioak direla medio. Berorien azterketak, tresna estatistikoetatik kanpoko bide alternatibo bat eskatzen du.

6 Erreferentziak

ADORNO, Theodor eta HORKHEIMER, Max (1998) *Dialéctica de la ilustración. Fragmentos filosóficos*. Madril: Trotta.

EUROPAKO BATZORDEA (2010), *Libro Verde. Liberar el potencial de las industrias culturales y creativas*. Brusela: Europako Batzordea.

EUROPAKO BATZORDEA (2012) *Promoting Cultural and Creative Sectors for Growth and Jobs in the EU*. Communication from the Commission to the European Parliament, the Council, the European Economic and Social Committee and the Committee of the Regions. Brusela: Europako Batzordea.

ECHEVARRIA, Javier (2012) EUSKERA *Libro verde sobre las industrias culturales y creativas en Euskadi*. Sinergiak Social Innovation.

ESSnet-Culture, European Statistical System Network on Culture (2012) *Final report*. Hemen eskura on line:
http://ec.europa.eu/assets/eac/culture/library/reports/ess-net-report_en.pdf

IKERTALDE (2005) *Euskadiko artisauei azterketak*. Kulturaren Euskal Kontseilua. Hemen eskura on line:
http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argitalpenak_sektoreka/eu_kebargit/adjuntos/artisautza_2005.pdf

KEA European Affairs (2009) *The Impact of Culture on Creativity*. Brusela: Europako Batzordea. Hemen eskura on line: <http://www.keanet.eu/docs/impactculturecreativityfull.pdf>

KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA (2013) *Kultura- eta sormen-industriak. Eztabaida teorikoa ikuspegi europarretik*. Vitoria-Gasteiz. Hemen eskura on line:
http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_sormen_industri_2013/eu_def/adjuntos/Kultura_sormen_industriak_2013.pdf

SINNERGIAK SOCIAL INNOVATION (2016) *Mapping de activos de las ICC en Euskadi: Agentes económicos y programas públicos de apoyo*. Donostia: UPV-EHU

UNESCO (2002) *Declaración Universal sobre Diversidad Cultural*. Hemen eskura on line: <http://unesdoc.unesco.org/images/0012/001271/127162s.pdf>

UNESCO (2005) *Kultura-adierazpenen aniztasuna babesteko eta sustatzeko konbentzioa*. Hemen eskura on line:
<http://unesdoc.unesco.org/images/0014/001429/142919s.pdf>



United Nations Development Programme (UNDP) (2013), *Creative Economy Report 2013 Special Edition. Widening Local Development Pathways*. New York: United Nations/UNDP/UNESCO. Hemen eskura on line: <http://www.unesco.org/culture/pdf/creative-economy-report-2013.pdf>

United Nations (UNCTAD) (2010), *Economía creativa: una opción factible de desarrollo*. United Nations/UNDP/UNCTAD. Hemen eskura on line: http://unctad.org/es/Docs/ditctab20103_sp.pdf

VAA (1982) *Industrias culturales: El futuro de la cultura en juego*. Mexiko: Fondo de cultura económica/ París: Unesco: Hemen eskura on line: <http://unesdoc.unesco.org/images/0013/001353/135399so.pdf>

ZALLO, Ramón (2010) *Industrias culturales y ciudades creativas*. KREANTA Fundazioa. Hemen eskura on line: <http://www.ramonzallo.com/wp-content/uploads/2012/02/kreanta-publicacion.pdf>

Eranskina_Sektoreen azterketa-fitxak

1. Sektorea: Ondarea, agiritegiak eta liburutegiak

Balio-katearen funtzioak

Sorkuntza	Ekoizpena/Argitalpena	Banaketa, merkataritza eta hedapena	Begiratzea	Hezkuntza	Kudeaketa eta erregulazioa
